

## **GEREZIONDOARI BEGIRA...**

Joana Dagorret, 12 urte

*Itsasu*

Gereziondoari so, udaberrian,  
Loretxo xuri-horiak adarren puntan;  
Hostoak txoratuta, txaloka hartzean,  
Fandangotan dira haizearen ferekan.  
Zuhaitza, arrastiria desagertzean,  
So dago, han baitira izarrak, zeruan...  
Ilargiaren bafada hitsa piztean,  
Zuhaitza lokartzen da, poza bihotzean!

Gereziondoari begi eman udan,  
Apo gorri bat bere barrunbe beroan.  
Zuhaitza begi-kliskaka hasten denean,  
Haren gain-gainea, kirtenetik dilindan,  
Haize txistulariarekin jostatzean,  
Arno gorri karatsa dute beren baitan:  
Hara, gerezi batzuk hasi dira dantzan!

Geraziondoari so larrazkenean,  
Adarraren gaineko xoria eskasean;  
Bere hosto gorri laranjak erortzean,  
Hosto ttipi bat agertzen da adar puntan,  
Bere azkeneko uneak gozatzean,

Irudi ederra grabatua bihotzean!  
Eroriko da argi zirrinta jitean,  
Hantxe pausatuz hosto metaren gainean.  
Gereziondoari begira neguan,  
Dena zegoen desberdin, guziak lotan.

Gereziondoa ageri zen goiz hartan,  
Biluzik, elur hotz-hotzaren erdian!  
Bi aizkolari daude haren inguruan...  
Azken begirada bota nion orduan...  
Malkoak lehertu zitzaizkidan matelan,  
Haize hotzak leihoa hetsi zidanean...  
Gereziondoaz oroituz...